

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2021eko uztailaren 5ean, arratsaldeko 20:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2021/68 Dekretua

2021/74 Dekretua

2021/80 Dekretua

2021/82 Dekretua

2021/90 Dekretua

2021/94 Dekretua

2021/97 Dekretua

2021/72 Dekretua

2021/76 Dekretua

2021/81 Dekretua

2021/84 Dekretua

2021/92 Dekretua

2021/95 Dekretua

2021/99 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2021/102 Dekretua	2021/103 Dekretua
2021/105 Dekretua	2021/107 Dekretua
2021/109 Dekretua	2021/114 Dekretua
2021/115 Dekretua	2021/116 Dekretua
2021/119 Dekretua	2021/121 Dekretua
2021/122 Dekretua	2021/124 Dekretua
2021/126 Dekretua	2021/127 Dekretua
2021/129 Dekretua	

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- 2021/02 KREDITU ALDAKETA

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

PROPOSATZEN DA:

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.153.41.01	Peoia	28.060,06	16.178,64	44.238,70
160.153.41.01	G.S.Peoia	10.606,68	6.115,53	16.722,21
211.320.00.01	Hezkuntza Zentruko Mantenimendua	500,00	500,00	1.000,00
224.153.40.01	Ibilgailuaren Asegurua	700,00	26,11	726,11
226.920.00.99	Bestelako Gastu Orokorrak	5.000,00	3.000,00	8.000,00
227.151.00.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	3.267,00	6.267,00



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

421.414.00.01	Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea	3.400,00	548,40	3.948,40
GUZTIRA		51.266,74	29.635,68	80.902,42

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	82.829,61	29.635,68	112.465,29
GUZTIRA		82.829,61	29.635,68	112,465,29

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

LAUGARRENA.- OTSABIO BASOAREN ENKANTEA

LEHENENGOA. Alkatetzak 2021eko maiatzaren 12an hartutako ebazpenari jarraiki, 2.054.3 "OTSABIO" mendiko egurraren aprobetxamendua besterentzeko espedienteari ekin zitzaion.

BIGARRENA. 2021eko maiatzaren 12an, ondasun-inbentarioaren ziurtagiria, 2.054.3 "OTSABIO" mendi publikoaren egoera aztertzen duena, igorri zen.

HIRUGARRENA. 2021eko maiatzaren 12an, alkatetzak 2021eko maiatzaren 12an hartutako ebazpenari jarraiki, idazkaritzak txosten bat igorri zuen, aplikatzekoa den Legeriari buruz eta jarraitu beharreko prozedurari buruz.

BOSGARRENA. 2021eko maiatzaren 24an, kontu-hartzaitzak txosten bat egin zuela, eta txosten horren arabera, aprobetxamenduaren balioespena Udalaren aurrekontuaren baliabide arrunten % 0,21 dela jakinik.

SEIGARRENA. Alkatetzak 2021eko maiatzaren 25ean hartutako ebazpenaren bidez, aipatutako kontratazioa egiteko espedienteari ekitea onartu zen, proposatutako kontratazioaren beharra eta egokitasunaren arrazoiak emanik.

Horrekin batera doan dokumentazioa azterturik, eta ikusirik Idazkaritzaren txostena, eta 3/2011 Legeak, azaroaren 14ekoak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoak,

EBATZI DUT



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

LEHENENGOA. ECONOLEÑA S.L.U.ri esleitzea 2.054.3 “OTSABIO” mendiko egurraren aprobetxamenduaren besterentzea 1.815,00 (Bez barne) euroren truke, harena izan delako eskaintza ekonomiko onuragarriena.

BIGARRENA. Kontratuaren esleipena duen ECONOLEÑA S.L.U.-ri ebazpen horren berri ematea eta kontratua sinatzeko hitzordua jartzea, zeina Lizartzan, 2021eko ekainaren 30ean izango baita, goizeko 10:00etan.

5.- IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. PREMIATASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Alkateak, hitza harturik, dio:

Premiatusunezko gaiaren justifikazioa, Bilkurako deia luzatu ondoren jaso da Izfe S.A. Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Lizartzako Udalaren arteko Lankidetzaz-Hitzarmena onartzearen proposamena.

Hurrengo bilkurako denbora dezente pasako denez, gaurko bilkuran sartzea proposatu da.

Premiatusunezko gaia gaurko bilkura sartzeko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Idazkaritzak 2021eko ekainaren 29an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta IZFE SA – Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen arteko Lankidetzaz-Hitzarmena onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2021eko ekainaren 28an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2021eko ekainaren 30eko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udala eta IZFE SA – Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen arteko Lankidetzeta-Hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

IZFE S.A. - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Lizartzan, 20..koren ..an

BILDUTA

Alde batetik, Iñaki Azpiroz Beldarrain, Lizartzako Udaleko Alkatea.

Eta bestetik, Eider Mendoza Larrañaga, IZFE SA – Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bi alderdiek, nork bere erakundearen izenean eta berau ordezkatzuz, hitzarmen hau izenpetzeko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta horretarako honakoak adierazi dituzte:

ADIERAZITAKOAK

I.- Autonomia Erkidego osorako erakundearen eta bere Lurralde Historikoetako Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. a 5 artikulua Lurralde Historikoei esleitzen die toki-erakundeentzako laguntza eta aholkularitza teknikoaren arloko eskumen eskusiboa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 artikulua Aldundiaren berezko eskumeneren artean ezartzen du, nolahi ere, udal-zerbitzuen arteko koordinazioa, udal-eskumenerako zerbitzuak probintziako lurralde osoan egoki egitea bermatzeko; udalerriei laguntza eta lankidetzeta juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematea; eta, bereziki, Administrazio elektronikari lotutako zerbitzuak eskaintzea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Baldintza hori betetzen dute gaur egun Gipuzkoako 88 udalerrietatik 81k.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (ETEL), 17.1.30) artikuluan xedatzen duenez, udalerriek beren eskumenak baliatu ahal izango dituzte honako arlo hauetan: teknologia berrietarako sarbidea antolatzea eta kudeatzea, administrazio elektronikoa, prozedurak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea, eta, bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera efiziente eta jasangarrian parte har dezaten sustatzea.

II.- Aurreko I. Atalean aipatutako eskumenak baliatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika-zerbitzuak eskaini eta ematen dizkie lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak – Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (hemendik aurrera IZFE SA) foru sozietate publikoaren bitartez eskaini eta eman ere, aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua izaki.


“Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak – Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA”, Merkataritzako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. artikulua honek xede sozialtzat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeko eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

III.- Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatzen dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo toki-erakunde bakoitzaren eta IZFE Saren arteko berariazko hitzarmenak.

2002. urtean izenpetu zen Lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berriro egin da.

Berariazko hitzarmenentan, berriz, delako toki-erakundeari dagokionez garatu beharreko jarduketak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak zehazten dira, betiere, esparru-hitzarmenak modu orokorrean aurreikusi dituen estipulazioei jarraikiz.

Lankidetzak hori lurralde historikoko udalei beren helburak lortzen laguntzeko aipaturiko eskumenean oinarritzen da, eta interes publiko ukaezina du, ez bakarrik udal administrazioaren esparruan informazioaren eta komunikazioen teknologien berezko tresnen erabilera garatzen delako, eta, horrela, udal zerbitzu publikoen eraginkortasuna handitzen delako, baita tresna horiek udalerrien artean eta foru sistema informatikoekin erabiltzeko aukera ematen duelako ere; horrela, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazten da, eta, aldi berean, foru



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

kudeaketa hobetzen daForu Aldundiaren eta udalen esparruen eskumenak elkarri lotuta dauden arloetan.

Ildo horretatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluari jarraikiz, administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahal dituzte Zuzenbide Pribatuko entitateekin, xede komun bat lortze aldera, betiere, modu horretan kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen bada, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten bada eta erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen laguntzen badu, besteak beste.

Gainera, hitzarmen markoa hori eta ondoriozko berariazko hitzarmenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legaren aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira, bere 6.1 artikuluan xedatuakoaren arabera.

Horrenbestez, esku hartzen duten erakundeek lankidetzak hitzarmen hau izenpetu dute honako klausula hauen arabera,

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea

Lankidetzak-hitzarmen honek IZFE S.A sozietateak Lizartzakoko Udalarari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira.

BIGARRENA.- IZFE SA sozietatearen betebeharrak

Oro har, IZFE SA sozietateak konpromisoa hartzen du, egindako informatika-zerbitzuei dagokienez, Lizartzako Udalak eskatzen dizkion informatika mantentze eta kudeaketako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko.

Halaber, zerbitzu informatikoen ezarpena bermatuko du Lizartzako udaleko antolamenduaren egiturako maila guztietan, honen ezaugarri eta behar zehatzen arabera, horretarako erakundeko langileen prestakuntza egokia eskaini beharko dielarik.

HIRUGARRENA.- Lizartzako Udalaren betebeharrak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Lizartzako Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatika-zerbitzuak eman eta jasoetzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren II. Eranskinean zehazten den gastuak banatzeko sistemaren eta hitzarmen marko horretan azaltzen den jarraipen batzorde betearazleak proposatutako banaketa irizpideen arabera egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin informatikako Lankidetzaren proiektuaren kostuaren %100eko ekarpena mantenduz.


Baita ere, ezarrita dauden edo ezarri nahi diren informatika zerbitzuak eta produktuak garatu eta hobetzerazuzendutako jardunetan (informatika egiturak definitzea, irizpideak eta estandarrak finkatzea, aplikazio berriak definitu, garatu eta ezartzea ...) eraginkortasunez laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

LAUGARRENA.- Informazio sistemen segurtasuna.

- 1.- Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko, IZFE Sak bete egingo ditu informazio sistemen segurtasunari dagokionez arlo hauetan indarrean dagoen arauditik eratorritako betebeharrak guztiak: administrazio elektronikoa eta identifikazio sistemak; izaera pertsonaleko datuen babesak; eta jabetza intelektualaren babesak softwarearen erabileran eta garapenean.
- 2.- IZFE SAK beharrezko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak zein antolaketa mailakoak, informazioaren eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea saihesteko. Horretarako, une bakoitzean dauden bitarteko tekniko egokienak eta antolakuntzazko bitarteko onenak erabiliko ditu, horien gainean izan daitezkeen arriskuak kontuan hartuta.
- 3.- Izaera pertsonaleko datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituz, Lizartzako Udalak izango da tratamenduen arduraduna, eta IZFE SA, berriz, tratamendu eragilea izango da.

IZFE SAK berak gordetzen duen informazioa soilik tratatuko du, udal edo toki erakundeak formalki izendatutako tratamendu arduradunengandik jasotzen dituen jarraibideei jarraituz, eta inoiz ez du aplikatuko edo erabiliko hemen aurreikusitakoa ez den beste helburuetarako.

IZFE SAK, informazioak eta zerbitzuak jasotzeko unean, ez du horien osotasun eta segurtasuna babesteko beharrezko neurriak betetzen ez dituen sistema informatikorik erabiliko. Gauza bera informazio eta zerbitzuak gordetzen edo tratatzen diren lokal, ekipo, sistema eta programei dagokienez ere.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

4.- Informazio eta zerbitzuen tratamenduko edozein fasetan parte hartzen duten IZFE SAren langileek eta udaletako eta gainerako toki erakundeetako zerbitzuek indarrean dauden segurtasun neurriak eta sekretu profesionala mantendu behar dituzte horiei dagokienez, eta gorde egin behar dituzte; eta betekizun hauek indarrean jarraituko dute, hala egokituz gero baita IZFE SArekiko harremanak amaitu ondoren ere.

IZFE SAK obligazio honen berri emango die bere langileei, izan ditzaketen erantzukizunak aditzera emanaz. Eta obligazio hau bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Neurri horiek aplikatuko zaizkie, baita ere, tratamendua parte har dezaketen hirugarrenen langileei; hortaz, hori jasota egongo da dagozkien zerbitzu prestaziorako akordioetan.

5.- Lizartzako Udalaren informazioa, tratamenduaren xede izango dena, hirugarren pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu bat komunikatzeko, ezinbestekoa izango da informazioaren edo tratamenduaren ardura duen pertsonaren baimena.

6.- IZFE SAren sistema informatikoetan gordetzako Lizartzako Udalaren zerbitzu eta informazioek legedi aplikagarrian zehaztutako baldintzen arabera segurtasun neurriak izan beharko dituzte. Beraz, aintzat hartu beharko dira hurrenak:

a.- Gutixenez, administrazio elektronikoaren arloan informazioari eta zerbitzuei esleitutako mailari dagozkionak, kontuan hartuta Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretua.

b.- Teknikaren egoera, aplikazio kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak kontuan hartuta, izaera pertsonaleko datuen tratamenduari lotutako pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez egon daitezkeen arriskuen azterketatik ondorioztatzen diren neurriak, izan teknikoak, izan antolakuntzakoak, arriskuaren arabera segurtasun maila bermatzeko xedez.

7.- Zerbitzua zuzen ematen dela eta informazio sistemen segurtasuna egoki kudeatzen dela bermatzeko, IZFE SAK garatuta, onartuta eta ezarrita du Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat, ISO 27001 arauaren arabera ikuskatu eta ziurtatua.

BOSGARRENA.- Emango diren oinarrizko zerbitzuak



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

IZFE SAK Lizartzako Udalari eskaintzen dizkion informatika zerbitzuen artean, oinarritzat jotzen dira, eta haien mantentze eta hobetze lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik, gutxienez honako hauek:

- 1.- Informatika, teknologia eta telekomunikazio azpiegiturekin lotutako zerbitzuak.
- 2.- Hauekin lotutako proiektuak zuzentzea: IKT komunak, azpiegitura teknologikoak, informazio sistemak, soluzio informatikoak nahiz aplikazioak.
- 3.- Soluzio informatiko komunak aztertu, garatu, integratu, ezarri eta mantentzeko zerbitzuak.
- 4.- Lizenziak, aplikazioak eta soluzio informatikoak erosi eta kudeatzea udalen proiektu orokorraren premiei erantzuteko. Zerbitzu honen barruan sartuko da, dagokionean, soluzioaren integrazioa eta egokitzapena.
- 5.- Laguntza teknikoa erabiltzaileei.
- 6.- Prestakuntza

Zerbitzu horien deskribapen xehatua hitzarmen honen I. eranskian garatzen da, eta, horrekin batera, IZFE SA sozietatearen bidez Lizartzako Udalari eskaintzen zaizkion aplikazio eta sistema informatikoen zerrenda ere jasotzen da. Horiek mantentzeko eta hobetzeko lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik.

SEIGARRENA.- Beste zerbitzu batuk

Oinarrizko zerbitzuez gain, IZFE Sak zerbitzu informatikoen katalogo hau eskaini ahal izango dio Lizartzako Udalari:

- 1.- Bideragarritasun azterketak.
- 2.- Tratamendu informatikoa izan dezaketen proiektuak definitzen laguntzea.
- 3.- Konponbide informatikoak aplikatu aurreko antolaketa azterketak egitea.
- 4.- Aplikazioak edo merkatuko soluzio informatikoak eskuratzeko aholkularitza, behar espezifikoiei erantzuteko.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 5.- Aholkularitza informatiko eta teknologikoko zerbitzuak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko plan estrategiko korporatiboak definitu, ezarri eta gauzatzea, nahiz horien inguruko aholkularitza ematea.
- 6.- IKT proiektuen, azpiegitura teknologikoen, informazio sistemen, soluzio informatikoen eta aplikazio espezifikoaren zuzendaritza.
- 7.- Udalarentzako berriazko softwarea garatzeko zerbitzuak.
- 8.- Azpiegitura zerbitzuak IZFE Saren hodei pribatuan.
- 9.- Toki erakundearen sareari dagozkion elementuak zerbitzari eta routerrak konfiguratzeko laguntzea, bai eta lanpostuari dagozkionak ere.
- 10.- Erakunde eskatzailearen beharretara egokitutako prestakuntza programak, IZFE SAren egoitzetan edo erakundearen beraren egoitzetan.
- 11.- Beste zerbitzu batzuk: IZFE SA sozietatearen xedearekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu.

ZAZPIGARRENA.- Prestakuntza

IZFE SAK Foru Elkarteak berak garatutako aplikazio informatikoei buruzko prestakuntza ikastaroak antolatu eta emango ditu, batez ere, Lizartza Udaleko langileen aldetik tresna informatikoen erabilera zuzena ziurtatzearren, betiere, hitzarmen markoko hamabosgarren klausulan hitzartutakoari loturik.

Prestakuntzaren arloko helburuak finkatzeko, irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Urteko prestakuntza egutegiak egoteko ahalegina egingo da. Egutegi horiek erabiltzaile guztiei jakinaraziko zaizkie, komenigarritzat jotzen den moduan, eta IZFE SA enpresak Interneten dituen foroetan ere sartuko dira.
- Ahaleginak egingo dira prestakuntzak maila aurreratuak izan ditzan, bai bulegotika aplikazioetan, bai IZFEren aplikazioetan.
- Aplikazio bakoitzeko eskuliburuak egingo dira, argiak eta ondo egituratuak, erabiltzaileei laguntzeko.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

ZORTZIGARRENA.- Udal-solaskideak

Hitzartutako alderdien artean beharrezko komunikazioa mantentzearen, Lizartzako Udalak ordezkari bat izendatuko du IZFE SA sozietatearekiko solaskide gisa, egindako edo egingo diren zerbitzuekin zerikusia duten eta toki-erakundean eragina izan dezaketen gai edo gorabehera guztiak koordinatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Fakturazioa

Hitzarmen honen xede diren zerbitzu informatikoak emateagatiko fakturazioa, bai oinarrizko zerbitzuak, bait beste zerbitzu batzuk, hiru hilean behin egingo da, arau orokor gisa, eta honako kontzeptu hauek jaso beharko ditu:

1.- Oinarrizko zerbitzuak ,honako hauek barne:

Lankidetzaren proiektuaren gastuen derramari dagokion parte, lankidetzaren proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. Berariazko hitzarmen honen eranskinean ezarritako gastuen arabera.

2.- Beste zerbitzu batzuk (hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritakoak)

Lizartzako Udalak eskatutako zerbitzuak, baldin eta horien kostua ez badago jasota Udalaren lankidetzaren proiektuaren urteko kostuan Oinarrizko zerbitzuak, Lizartzako Udalak onartutako eskaintza espezifikoan jasotzen den moduan eta prezioan fakturatuko dira.

Lizartzako Udalak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak finantzatzeko kredituak (lankidetzaren proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. Eranskinean) adierazitako zenbatekoak dira, eta bertan adierazitako aurrekontu partidetan daude kontsignatuta.

HAMARGARRENA.- Eztatidak konpontzea

Hitzarmen honen kudaketa, jarraipena eta kontrola egiteko, hitzarmen markoaren bederatzigarren klausulan ezarritako jarraipen batzordeari aurkeztuko zaizkio, argitu eta ebatzi ditzan.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena berrikustea



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Hitzarmen honen testua aldatu ahal izango da, alderdietako edozeinek eskatuta, hitzarmenaren xedea eta haren ondoriozko jarduerak hobeto gauzatzeko beharrezkoa denean.

Hitzarmenaren klausulak berrikusten badira, dagozkion aldaketak bertan sartu beharko dira, alderdiek izenpetuko duten gehigarri baten bidez.

Era berean, eranskin prozedura horren bidez, alderdiek eranskinak eranstea edo aldatzea erabaki ahal izango dute, bai hitzarmen honetan zehaztutako zerbitzu informatikoak hobetzeko, handitzeko edo eguneratzeko, bai gastuak banatzeko sistema aldatzeko, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honetako klausulak berrikustea.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

HAMAHIRUGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, 2021eko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena gehienez beste lau urtetarako luzatzea edo iraungitzea.

HAMALAU GARRENA.- Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzeagatik.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betezea.

Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, epe jakin baten barruan beste ditzan betegabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betezea irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.

- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.

- e) Aurrekoak ez diren bestelako arrazoiak, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitakoak.

Nolanahi ere, salaketa jakinarazi den momentuan hasita dauden jarduerak bukatzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek.

Hitzarmena suntsiarazteak ez du ekarriko hitzarmen honen hirugarren klausulan aurreikusitako egindako kontribuzio ekonomikoa itzultzea, jada gauzatu bada, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

HAMABOSGARRENA.- Jurisdikzio eskuduna

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

Eta ados daudela frogatuz, hitzarmen hau bi aletan izenpetu dute, ondorio bakarrerako, goiburukoan adierazitako toki eta egunean.


Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak Lizartzako Udaleko Alkatea

I. ERANSKINA – ZERBITZUEN XEHETASUNA

A) Oinarritzko zerbitzuak

1.- Informatika, teknologia eta telekomunikazio azpiegiturekin lotutako zerbitzuak:

Zerbitzu honetan sartzen dira, oro har, administrazio elektronikoa garatu eta ezartzeko nahiz soluzio informatikoen eta informazio sistemen exekuzio eta erabilera



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

egokirako elementu, osagari eta ekipamendu tekniko eta teknologikoak aztertu, diseinatu, erosi, kudeatu, abiarazi, administratu, eguneratu eta mantentzea.

Azpiegitura teknologikoko zerbitzu hau emateko, ZIFE Sak bitarteko hauek jarri eta erabiliko ditu, besteak beste:

- Datu tratamendurako bi zentro, datuen eskuragarritasun osoa eman eta bermatzen dutenak. Azpiegitura hau sarbide mugatuko bunker batean dago, babestuta, eta etenik gabeko klimatizazio eta argindar sistema bikoitzak ditu.
- Sare informatiko korporatiboaren kudeaketa integral seguru eta globala, izar bikoitzeko topologiarekin, korapilo eta azpisare askorekin. Sare horrek Gipuzkoako Foru administrazio guztiari ematen dio zerbitzua, eta Euskadiko nahiz Estatuko gainerkako administrazioekin lotzen da.
- Sare informatikorako konexio pribatu eta segurua konektaturiko toki egoitza guztietan.
- Abiadura handiko, ahalmen handiko eta dedikazio eskusiboko konexioa datuen tratamendurako bi zentroetara konektatutako egoitzetan. Implementazio erredundante edo bikoitza izango du, hutsegitea edo matxura gertatzen bada ere funtzionatzen jarraituko duela bermatzeko.
- Interneterako sarbide integral eta sekurizatu, ahalmen handikoa eta erredundantea, sarbide zerbitzuaren egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatzeko.
- Foru Aldundiko ekipo, datu zerbitzari eta aplikazio korporatibo guztiak nahiz horie dagozkien plataforma, programa eta soluzioal ostatu, administratu, kudeatu eta mantentzea. Zerbitzua garapen inguruneetan, proba inguruneetan eta ekoizpen inguruneetan ematen da.
- Udal esparruko datu, agiri eta datu base guztien administrazioa, kudeaketa, mantentze teknikoa, segurtasun kopien kudeaketa eta erreplikatzeko. Horretarako, datuen tratamendurako bi zentro erredundanteak erabiliko dira, hondamendia, hutsegitea edo matxura gertatuz gero zerbitzuak etenik gabe jarraitzea bermatzen baitute.
- Hodei pribatuan soluzioak eta aplikazioak implementatzeko behar diren azpiegitura eta aplikazioak kudeatzea.




LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- .- Bolumen handiko inpresio digital aurreratuko soluzioa, koloretan, komunikazio eta jakinarazpen korporatiboak diseinatu, igorri, inprimatu, manipulatu eta banatzeko.
- .- Zerbitzari seguruaren ziurtagirien, aplikazioen ziurtagirien, kode-sinaduraren eta abarren kudeaketa orokorra.
- .- Webguneen kudeaketa.
- .- Azpiegituren segurtasun integrala, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- 2.- Hauekin lotutako proiektuak zuzentzea: IKT komunak, azpiegitura teknologikoak, informazio sistemak, soluzio informatikoak nahiz aplikazioak.
- 3.- Soluzio informatikoak aztertu, garatu, integratu, ezarri eta mantentzeko zerbitzuak.
- 4.- Lizenziak, aplikazioa eta soluzio informatikoak erosi eta kudeatzea udalen proiektu orokorraren premiei erantzuteko. Zerbitzu honen barruan sartuko da, dagokionean, soluzioaren integrazioa eta egokitzapena.
- 5.- Laguntza teknikoa erabiltzaileei:
 - LaZer2000, Gipuzkoako udal eremuko erabiltzaileentzako arreta zerbitzu integrala, telefonoz, idatziz eta urrutiko kontrol bidez ematen dena, emandako zerbitzuekin lotutako edozein gorabehera, arazo edo kontsulta konpontzeko.
 - Online laguntza informatikoa herritarrei eta enpresei, txat bidez edo urruneko kontrolaren bidez, eskura jarritako aplikazioen eta zerbitzu informatikoen erabileraren eta funtzionamenduaren inguruan.
- 6.- Prestakuntza

Urteko prestakuntza planak, aplikazioen erabilerari eta beste atal batzuei buruzkoak, oinarrizko ikastaro aurreratuak, zalantzak ebazteko tailerrak eta abar barne direla.

B.- Oinarrizko aplikazio eta sistema informatikoak

IZFE SA sozietaren bidez Lizartzako Udalari eskaintzen zaizkion aplikazio eta sistema informatikoak, best edozein proiekturen gaineratik lehenetsunez mantendu eta hobetuko direnak, honako hauek dira:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- .- Biztanleen udal errolda
- .- Udal errolda fiskalak
- .- Udal zerga bilketa
- .- Isunak
- .- Udaltzaingoa
- .- Sarrera eta irteera erregistroa
- .- Espedienteen kudeatzailea
- .- Ahalordeen erregistroa
- .- Administrazio elektronikoko zerbitzuak
 - Egoitza elektronikoa eta herritarrentzako zerbitzuak
 - Espediente elektronikoa
 - Sinadura elektronikoko soluzioak
 - Sinagailu elektronikoak
 - Herritarrentzako sinadura biometrikoa
 - Erregistroen elkarreragingarritasuna
 - Jakinarazpen Elektronikoa
 - Informazioa emateko eta jasotzeko elkarreragingarritasuna. NISAE
- .- Kudeaketa Ekonomikoko Sistema Integratua
 - Aurrekontu kontabilitatea
 - Ondare kontabilitatea
 - Diruzaintzaren kudeaketa
 - Fakturak kudeatzea
- .- Hirugarrenen kudeatzailea eta Herritarren Arreta Zerbiturako tresna
- .- Nomina
- .- Aginte-koadroa eta informazio agregatuaren analisisa
- .- Audio-aktak egitea eta argitaratzea
- .- Web-atarien kudeatzailea
- .- Gardentasunaren ataria eta Open Data
- .- Partaidetza-ataria
- .- Posta elektronikoko zerbitzuak eta mezu elektronikoak iragaztea.

II Eranskina – Finantzaketa eta gastu banaketa

Finantzaketa. IZFE-Udalak lankidetzan informatikoko proiektua garatu eta ustiatzeko sortzen diren gastuak bi kategoriatan biltzen dira: gastu arruntak eta kapital-gastuak.

Gastu arruntak zerbitzuetako funtzionamendu-premiak asetzeko erabiltzen dira eta urteko aurrekontu-ekitaldian agortzen dira. Pertsonal gastuak, komunikazioei dagozkienak eta administrazioak dira bereizgarrienak.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Kapital gastuak ekipo eta azpiegituretako inbertsioak finantzatzeko erabiltzen dira eta beren indarraldia urteko aurrekontu-ekitaldiaz gaindikoa izaten da. Horien artean daude: ordenagailuak, terminalak, inprimagailuak, zerbitzariak, sare lokalak, txartelak eta komunikazio-elementuak, besteak beste.

Bi kategorietarako gastuak hurrengo klausulan adierazitako eran ordainduko dira:

Gastuen banaketa: Gastuak jarraian adierazitako eran banatuko dira berariazko hitzarmenak sinatzen dituzten alderdien artean:

A) Kapital Gastuak

- 1) IZFE SAREN kontura izango dira IZFE SAREN zentroetako azpiegitura teknologikoan, ordenagailuetan, altzarietan eta bulegoko ekipoetan inbertitzeko inbertsioak.
- 2) Lizartzako Udalaren kontura izango dira Udalaren material propioaren erosketari eta mantentze-lanei dagozkienak soilik, IZFE SAREkin konektatzen duen sareari dagozkion komunikazio elementuak izan ezik.


B) Gastu Arruntak

- 1) Udalen eta gainerako toki-erakundearen kontura izango dira IZFE-Udalak lankidetzan informatikoko proiektuari zuzenean egotzitako gastuen % 100 (hala nola aholkularitza zerbitzuak, euskarria, barneko eta herritarrentzako EAZ, IKT soluzioak eta toki-esparruko aplikazioen garapena eta mantentzea).
- 2) Udalei egotziko zaie Sistemen, Komunikazioen eta Ustiapenaren arloko ekoizpen-gastuen eta sistemen zati proportzionala, bai eta IZFEko atal komunitarioen gastu orokorren isuria ere.

Egoitza Ngusiko komunikazio lerroen erabilera eta horien erabileraren ordainketa modu zentralizatuan kudeatuko da, lankidetzan proiektuaren beste kostu-elementu bat den aldetik.

Nolanahi ere, udalek eta gainerako toki-erakundeek egin beharreko ekarpena haien artean banatuko da, Jarraipen Exekutiboko Batzordeak urtero proposatutako irizpideen arabera.

IZFE-Udalak lankidetzan informatikoko proiektuaren barruan emandako oinarritzko zerbitzuei dagokien urteko aurrekontua II. Eranskinaren gehigarri gisa artuko da



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

hitzarmen honetan: “IZFE-Udalak lankidetza informatikoko proiektuko oinarrizko zerbitzuei dagozkien gastuen urteko hainbanaketa”

Hitzarmen honen II eranskinaren gehigarri gisa doa “IZFE-Udalak lankidetza informatikoko proiektuko oinarrizko zerbitzuei dagozkien gastuen 2021ko hainbanaketa”.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

7.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, ilunabarreko zortzi t'erdietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia